



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2025 KARTEL LEHIAKETA

DEIALDIA

Aurkezteko epea: maiatzaren 12tik 26ra bitartean.

Saria: 100€.

Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: **“FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2025 ELGETA”**, berau baita deialdiaren gaia. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean **“uztailaren 3tik 6ra”**.

Saritua aukeratzeko modua: buztin gelan erakutsiko dira lanak eta on-line bozkatu. Boto gehien jasotzen duena izango da **irabazlea**.

Oinarriak: jarraian edota www.elgeta.eus webgunean kontsultagai.

Elgetan, 2025eko maiatzaren 6an



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2025 KARTEL LEHIAKETA

OINARRIAK

- 1.** Edonork har dezake parte.
- 2.** Formatua A3 neurrikoa izan behar da.
- 3.** Lan guztiek originalak izan beharko dute.
- 4.** Lanak euskarri digitalean (jpg. formatuan) aurkeztu behar dira derrigorrez.
- 5.** Nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira.
- 6.** Gaia librea da (koloreak eta konposaketa), dena den, kontuan hartu beharko da deialdiaren zergatia.
- 7.** Ezin dira irudi-eskubideak dituzten elementuak erabili.
- 8.** Pertsonen argazkiak erabili daitezke baldin eta hauen baimena aurkezten bada, edo tutoreena adin txikikoa bada.
- 9.** Ezin da argazki zaharrik erabili.
- 10.** Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: “FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2025 ELGETA”, berau baita deialdiaren gaia. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean (uztailaren 3tik 6ra).
- 11.** Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - a.** Lana formatu digitalean.
 - b.** Egilearen izena, bi abizen, NAN, helbidea eta telefono zenbakia.
danonartian@elgeta.eus helbidera bidali behar dira bai lana, bai eta gainontzeko datuak ere.
- 12.** Sari bakarra izango da: 100 €, garbi.
- 13.** Kartelak aurkezteko azken eguna: maiatzak 26.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- 14.** Kartel irabazlearen hautaketa prozesua honako hau izango da: kartelak buztin gelan eskegiko dira eta herritarrek on-line botoa eman ahal izango dute ekainaren 2tik 8ra. Boto gehien jasotzen duen kartela izango da irabazlea.
- 15.** Kartel irabazlea zein izan den ekainaren 9an emango da jakitera.
- 16.** Ez da saririk emango epaimahaiak horrela irizten badio. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.
- 17.** Obra saritua Udalaren esku geratuko da, eta Udalak lana erakutsi eta argitaratu egin dezake horrela irizten badio.